

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL USO Y FUNCIONAMIENTO DE LAS INSTALACIONES MUNICIPALES DE CARÁCTER CULTURAL

Artículo 1. -Objeto

1. La presente Ordenanza Municipal tiene por objeto regular el uso y funcionamiento puntual a personas físicas o colectivos de las instalaciones municipales de carácter cultural.

2. Se entenderán por dependencias culturales o instalaciones municipales con carácter cultural las siguientes:

- Kultur Etxea de Sodupe.
- Kultur Etxea de Güeñes.
- Escuelas de Zaramillo.
- Escuelas de la Quadra.

Artículo 2.-Procedimientos de solicitud

1. Las dependencias culturales deberán ser solicitadas al Ayuntamiento de Güeñes con al menos 10 días de antelación a la fecha prevista de celebración de la actividad mediante el modelo de instancia que para tal efecto se posee y que está a disposición de la ciudadanía bien en el propio Ayuntamiento, oficinas municipales, Biblioteca de la Kultur Etxea o en la página web municipal.

La solicitud deberá reflejar al menos:

- El objeto de la reunión.
- N° estimado de participantes.
- Horario previsto.
- Datos identificativos de la persona responsable del acto.

La persona solicitante deberá depositar la fianza fijada por el Ayto., como garantía de la reposición de los daños que pudieran producirse. Una vez concluido el acto y comprobado que no existe daño ninguno se devolverá la citada fianza. En caso de existir daños se incautará la misma, previa tramitación del oportuno expediente.

La persona que presente la solicitud será responsable de la apertura y cierre del local.

2. Podrán solicitar la cesión gratuita de dichas instalaciones todos los colectivos, grupos o asociaciones legalmente constituidos con sede social en el municipio o que siendo de fuera del mismo realicen parte de sus actividades en el ámbito municipal, quedando exceptuadas las entidades con carácter político, político-reivindicativo, sindical o lucrativo. Asimismo las actividades a realizar por parte de los colectivos, grupos o asociaciones citadas deberán perseguir los fines y objetivos para lo que se constituyeron, no pudiendo realizar actividades de carácter o relación política, sindical o lucrativa.

Todo ello sin perjuicio de que este Ayuntamiento pueda denegar cualquier solicitud de alquiler si el motivo o fin de la actividad atentara de alguna manera contra los derechos individuales o colectivos de las personas.

En los demás supuestos la Corporación Municipal aplicará las tasas fijadas en las Ordenanzas Fiscales Municipales.

3. Las dependencias sólo podrán ser solicitadas para los días laborables y deberán ser desalojadas como hora límite para las 21:00 horas. En este apartado se exceptuarán las actividades organizadas por el propio Ayuntamiento y ocasiones especiales determinadas y/o autorizadas por la Corporación Municipal, reservándose la Junta de Gobierno Local la potestad de autorizar excepcionalmente el uso de dichos locales atendiendo al interés público, aún en supuestos no incluidos en la presente ordenanza.

Artículo 3.-Normas de funcionamiento

1. Las solicitudes deberán ser presentadas en el Registro Municipal bajo la responsabilidad de una persona física que esté presente durante el desarrollo de la actividad y se haga cargo de los desperfectos si los hubiera.

2. La Corporación municipal mediante su Junta de Gobierno Local, de conformidad con esta normativa, es la que determina la aprobación o denegación de todas las solicitudes para este fin.

3. Para solicitar cualquiera de las dependencias se deberá tener en cuenta que la instalación no esté ocupada, ni que existan otras actividades programadas para esa fecha en el mismo local.

4. No se podrán realizar montajes extras de estructuras ni equipamientos (sillas, mesas, material externo...) salvo permiso especial de la Corporación Municipal.

5. La necesidad de utilización de cualquier material que estas salas dispongan deberá ser comunicado en la instancia de solicitud y si ésta es aceptada, después de su utilización se deberá devolver el material al sitio que antes ocupaba.

6. El Aula de Cultura, en ningún caso, se responsabiliza de:

- Confeccionar ni pegar carteles anunciativos de la actividad a realizar.
- Realizar la convocatoria.
- Facilitar recursos humanos para el desarrollo de la actividad.

Artículo 4.-Incumplimiento de la normativa. Infracciones y sanciones.

Los hechos y actuaciones que realicen los y las usuarias e impliquen una actuación contraria a lo dispuesto en el Reglamento, serán calificados como infracción de la normativa a la que se impondrá la sanción que corresponda.

Las **infracciones** se dividen **en graves y leves**.

Se consideran **infracciones graves**:

1. Sustraer intencionadamente o causar daños a instalaciones, equipos, materiales y objetos tanto de los y las usuarias como de los y las demás intervinientes.
2. Provocar riñas, agresiones o tumultos en los recintos.
3. Agredir física o verbalmente a los o las responsables de las actividades.
4. No atender reiteradamente a las indicaciones que los o las responsables establezcan para el buen funcionamiento de los locales y servicios.
5. Haber sido sancionado en más de dos ocasiones por la misma infracción leve.

Se consideran **infracciones leves**:

1. Introducir animales u objetos no permitidos en las instalaciones.
2. El incumplimiento de forma reiterada de las normas específicas de uso de cada local.
3. La entrada en áreas destinadas exclusivamente para otra actividad.
4. Practicar actividades en zonas no destinadas a dicho fin.
5. Alterar el orden y buen funcionamiento de las instalaciones o faltando al respeto de los y las demás usuarias.
6. Producir daños o maltratar los objetos utilizados para las actividades y de las instalaciones puestas a disposición de las personas usuarias.
7. No guardar los objetos utilizados para las actividades de forma reiterada.
8. No respetar las demás prohibiciones, limitaciones u obligaciones establecidas en esta Normativa.

Sanciones por la comisión de **infracciones graves**:

1. Expulsión del local sin posibilidad de acceder de nuevo al mismo.
2. Expulsión temporal por un periodo máximo de 6 meses.
3. Si como consecuencia de la comisión de dos o más infracciones graves se hubieran producido daños o perjuicios en las instalaciones, cabría imponer junto con la sanción, el reintegro del coste de la reparación del perjuicio o daño causado, pudiendo dar lugar a su reclamación por la vía apremio a través del Ayuntamiento.

Las infracciones y sanciones graves prescribirán a los dos años de su comisión.

Sanciones por la comisión de infracciones leves:

1. Expulsión temporal por un periodo máximo de 15 días con suspensión de los derechos que pudiera tener.
2. Apercibimiento o represión pública o privada.
3. Si como consecuencia de la infracción se hubieran producido perjuicios o daños en las instalaciones, cabría imponer como sanción el importe a que ascienda el coste de la reparación del daño.
4. La comisión de 3 infracciones leves en el plazo de 3 meses dará lugar a la imposición de una sanción por infracción grave.
5. La imposición de una multa, en función de la mayor o menor gravedad de los hechos, por el importe que varía entre 1 y 120,20 euros.

Las infracciones y sanciones leves prescribirán en el plazo de 1 año.

Artículo 5. Recursos y reclamaciones.

Contra los actos del Ayuntamiento, incluídos los que se dicten para la sanción de faltas que cometan las personas usuarias, podrán interponerse los recursos jurisdiccionales y administrativos previstos en las disposiciones vigentes.

KULTURAKO UDAL INSTALAZIOEN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUPETZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. -Xedea

1. Udal Ordenantza honen xedea da kulturako udal instalazioen erabilera eta funtzionamendua araupetzea pertsona fisiko edo taldeentzat.

2. Kulturako areto edo kulturako udal instalaziotzat hurrengoak joko dira:

- Sodupeko Kultur Etxea.
- Güeñesko Kultur Etxea.
- Zaramilloko eskolak.
- La Quadrako eskolak.

2. artikulua.- Eskabideetarako prozedurak

1. Kulturako aretoak Gueñesko Udalari eskatu behar zaizkio gutxienez aktibitatea egiteko aurreikusita dagoen data baino hamar egun lehenago. Horretarako dagoen eskabide-eredua erabiliko da. Orri hori auzokideen esku dago Udaletxean bertan, udal bulegoetan, Kultur Etxeko liburutegian edo udalaren web orrian.

Eskabidean gutxienez hurrengoak adieraziko dira:

- Bileraren xedea.
- Parte-hartzaileen kopurua gutxi gorabehera.
- Aurreikusitako ordutegia.
- Egintzaren arduraduna identifikatzen duten datuak.

Udalak ezarritako fidantza utzi behar du eskatzaileak, gerta daitezkeen kalteak konponduko direla bermatzeko. Behin ekitaldia amaituta eta egiaztatuta ez dagoela inolako kalterik, fidantza itzuliko da. Kalterik egotekotan fidantza hartuko da, dagokion espedientea izapidetu eta gero.

Eskabidea aurkezten duena lokala irekitzeaz eta ixteaz arduratuko da.

2. Instalazioen doaneko lagapena eskatu ahal izango dute legez eratu diren eta udalean egoitza duten edo, kanpokoa izanda, ekitaldiak udalerrian egiten dituzten talde edo elkarte guztiak, erakunde politikoak, politiko-erreibindikatzailak, sindikalak edo irabazteko asmoa dutenak izan ezik. Era berean, aipatu taldeek edo elkarteek egingo dituzten aktibitateek talde horien eratzearen xedea izan zena bete beharko dute. Ezin izango dute egin aktibitate politiko edo sindikalik ez eta irabazteko asmorik duten aktibitateerik.

Guzti hori, Udalak alokatzeko eskabidea ukatu dezakeenaren kaltetan gabe, aktibitatearen arrazoia edo helburua pertsonen edo taldeen eskubideen aurkakoak badira.

Gainerako kasuetan, Udalak Udal Ordenantza Fiskaletan finkatuta dauden tasak ezarriko ditu.

3. Aretoak bakarrik lanegunetarako eskatu ahal izango dira eta gehienez jota 21.000etarako libre utziko dira. Atal honetan Udalak berak antolatzen dituen aktibitateak eta okasio bereziak, Udalak erabakita edota baimenduta, salbuetsiko dira. Tokiko Gobernu Batzordeak gaitasuna izango du lokal horien erabilera baimentzea salbuespeneko kasuetan, herri interesekoa bada, nahiz eta kasu horiek **ordenantza** honetan sartuta ez egon.

3. artikulua.- Funtzionamenduko arauak

1. Eskabideak Udal Erregistroan aurkeztuko dira eta erantzukizuna aktibitatea garatzen den bitartean dagoen lagun fisikoarena izango da. Lagun hori gerta daitezkeen kalteen kargu egingo da.

2. Udala da, Tokiko Gobernu Batzordearen bidez eta arautegi honen arabera, xede honetarako eskabideak onetsi edo ukatuko dituena.

3. Edozein areto eskatzeko, kontuan hartu beharko da instalazioa beteta ez egotea eta data horretarako lokal horretan beste aktibitaterik programaturik ez egotea.

4. Ezin izango dira aparteko egitura edo ekipamendurik jarri (aulkiak, mahaiak, kanpoko materiala) Udalak baimen berezirik ematen ez badu.

5. Areto horiek duten edozein material erabili behar izatea eskabide-orrian jakinaraziko da eta eskabidea onartzen bada, materiala erabili ondoren, lehen zegoen lekuan utzi beharko da.

6. Kultura Aretoa ez da inola ere hurrengoetaz arduratzen:

- Gauzatzekoa den aktibitatea iragartzen dituzten kartelak egiteaz edo itsasteaz.

- Deialdia egiteaz.

- Aktibitatea garatzeko giza baliabideak eskaintzeaz.

4. artikulua.- Arautegia ez betetzea. Arau-hausteak eta isunak.

Erabiltzeen egintzak edo jarduerak Arautegian xedatzen denaren kontrakoak badira, arau-haustetzat joko dira eta dagokion isuna jarriko da.

Arau-hausteak larriak edo arinak izango dira.

Arau-hauste larritzat joko dira:

6. Ostea edo erabiltzaileen edota gainerako parte-hartzaileen instalazio, ekipo, material eta gauzetan kalterik eragitea.

7. Barrunbeetan liskar, eraso edo zalapartarik sortzea.

8. Aktibitateen arduradunak fisikoki edo ahoz erasotzea.

9. Lokal edo zerbitzuen funtzionamendu onerako arduradunek ezartzen dituzten oharpenak behin eta berriro ez betetzea.
10. Arau-hauste arin beragatik bi aldiz baino gehiagotan zigortuta egotea.

Hurrengoak joko dira arau-hauste arintzat:

9. Instalazioetan animaliak edo baimentzen ez diren gauzak sartzea.
10. Lokal bakoitza erabiltzeko arau zehatzak behin eta berriro ez betetzea.
11. Beren beregi beste aktibitate baterako erabiltzen den guneetan sartzea.
12. Xede horretarako erabiltzen ez den guneetan aktibitateak egitea.
13. Instalazioen antolamendu eta funtzionamendu ona aldatzea edo gainerako erabiltzaileak ez errespetatzea.
14. Aktibitateetan erabiltzen diren gauzetan edo erabiltzaileen eskura jarritako instalazioetan kalterik sortzea edo txarto tratatzea.
15. Aktibitateetan erabiltzen diren gauzak behin eta berriro ez gordetzea.
16. Arautegi honetan ezarritako gainerako debeku, muga edo betekizunak ez betetzea.

Isunak arau-hauste larriak egiteagatik:

4. Lokaletik kanporatzea, berriro sartzeko aukerarik gabe.
5. Gehienez 6 hilabetez kanporatzea.
6. Bi arau-hauste larri edo gehiago egin eta instalazioetan kalterik eragin bada, isunarekin batera eragindako kaltea konpontzeko kostea ordaintzea ezarri ahal izango da eta Udalak premia bidez egitea eskatu ahal izango du .

Arau-hauste eta isun larriak arau-haustea egin eta bi urtera iraingiko dira.

Isunak arau-hauste arinak egiteagatik:

6. Gehienez 15 egunez kanporatzea eta izan ditzakeen eskubideak bertan behera uztea.
7. Ohartarazte publikoa edo pribatua.
8. Arau-haustearen ondorioz instalazioetan kalterik eragin bada, isunarekin batera eragindako kaltea konpontzeko kostea ordaintzea ezarri ahal izango da.
9. Hiru hilabeteko epean hiru arau-hauste arin egiteak ekarriko du arau-hauste larriko isuna ezartzea .
10. Isuna ezartzea egintzen larritasunaren arabera izango da, zenbatekoa euro bat eta 120,20 euro bitartekoa izan daitekeela.

Arau -hauste eta isun arinak urte bateko epean iraingiko dira.

5. artikulua. Errekurtsoak eta erreklamazioak.

Udalaren egintzen aurka, erabiltzaileek egiten dituzten faltak zigortzeko ezartzen direnak barne, indarreko xedapenetan aurreikusten diren jurisdikzio- eta administrazio-errekurtsoak jarri ahal izango dira.